

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 611/2016 Erabakia, irailaren 20koa, onartzen duena Gazteriaren Foru Erakundearen zerbitzura dauden langileen 2016ko ordainsari orokorren eta antzinasunaren gehikuntza

Ordainsariak direla-eta funtzio publikoan indarrean dagoen lege araubidea arautzen dute urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren Legearen testu bateratua onartzen duenak, uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, euskal funtzio publikoarenak, horiek garatzen dituzten zenbait arauk eta, batez ere, uztailaren 30eko 207/1990 Dekretuak, euskal administrazio publikoetako funtzionarioen ordainsariarenak. Arau horiek ezinbestean osatu behar dira Estatuaren 2016rako aurrekontu orokorren Legeak jasotako xedapenekin.

Arau horiekin bat etorriz, Estatuako aurrekontu orokorren Legean zehazten dira oinarrizko ordainsarien (Soldata, hirurtekoak eta aparteko ordainsariak) zenbatekoak.

Horren harira, urriaren 29ko 48/2015 Legearen, Estatuako 2016ko aurrekontu orokorrenaren, 19.2 artikulua xedatzen du: "2016an, sektore publikoko langileen ordainsariak, guztira, ezin izango dute 2015eko abenduaren 31n indarrean zeudenak baino ehuneko bat gehiago izan, nola langile kopuruari hala antzinasunari dagokienez, alderatzen diren bi aldiak homogeneotasunez tratatze aldera".

Lege horren 19.4 artikulua, halaber, hau xedatzen du: "Lan kontratuko langileen soldata masa, zeina artikulua honen bigarren paragrafoan ezarritako gehienezko ehunekoaren arabera gehituko baita, osatzen da soldatazko eta soldataz besteko ordainsarien multzoarekin eta langile horiek 2015ean sorrarazi dituzten gizarte ekintzako gastuekin, betiere alderatzen diren bi epeetarako berdintasunezko irizpideak baliatuz".

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren, enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuarenaren, 37. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz eta uztailaren 6ko 6/1989 Legearen, euskal funtzio publikoarenaren, VI. tituluarekin harremanetan, entzunaldi izapidea bete da.

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 8ko 26/2010 Foru Dekretuak, Gazteriaren Foru Erakunde autonomoaren egitura eta funtzionamendu araudia aldatzen duenak, 11.d) artikuluan xedatzen duenarekin bat etorriz, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari dagokio, erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluko lehendakaria den aldetik, funtzio publikoan eskumena daukan Arabako Foru Aldundiko sailarekin koordinazioan, Diputatuen Kontseiluari urtero proposatzea erakunde autonomoari atxikitako langileei aplikatu beharreko ordainsari araubidea eta soldata baldintzak.

Bestalde, Diputatuen Kontseiluari dagokio foru administrazio honetako langileen lan baldintzak zehaztea eta onartzea, halaxe xedatzen baitu abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, 8.17 artikuluan, hura harremanetan jarrita urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauak, ekonomia jardueren eta deszentralizatutako foru zerbitzu publikoen kudeaketari buruzkoak, 7. eta 9. artikuluetan xedatutakoarekin.

Horiek horrela, Kontuhartzailatza Zerbitzuaren aginduzko eta alde zuzeneko txostena eskatu da, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren Foru Arauaren 8. artikulua (52/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa) Ekonomia jardueren eta foru

zerbitzu deszentralizatuen kudeaketari buruzko Foru Arauaren 7. artikuluekin lotuta xedatutakoaren arabera (15/1987 Foru Araua, urriaren 30ekoa).

Horregatik guztiagatik, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea Gazteriaren Foru Erakundearen zerbitzura dauden langileen 2016ko ordainsari orokorra eta antzinatasunari dagokiona 2015ean jasotakoa baino ehuneko 1 gehiago izatea.

Bigarrena. Onartzea, Diputatuen Kontseiluaren urtarrilaren 19ko 15/2016 Erabakiaren bidez, Gazteriaren Foru Erakundearen 2016rako sortutako produktibitate funtsa ehuneko bat handitzea.

Hirugarrena. Diputatuen Kontseiluak onartu eta hurrengo egunetik aurrera egongo da indarrean erabaki hau, ALHAOn argitaratu gorabehera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 20a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE